

PRENTSA OHARRA

GUREAK MARKETING ETA METAPOSTA ALIATU EGIN DIRA PROZESUEN ERALDAKETA DIGITALARI AURRE EGITEKO ETA ESPERIENTZIA ZABALTZEKO

- *Lankidetzeta-hitzarmena GUREAKek jorratutako barne-prozesu dokumentalen digitalizazioan bi erakundeek partekatu duten esperientzian oinarritzen da.*
- *Pertsonen arloko espediente elektronikoak, paperezko artxiboaren digitalizazioa barne, barne-prozesuak eta -komunikazioak segurtasun eta pribatutasun osoz sinplifikatzeak, denbora eta kostuak aurrezteka ekarri du, eta, orain, bezeroei eskaintzea erabaki dute.*

Donostian, 2022ko martxoaren 17an.GUREAKek, desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunean erreferente, eta METAPOSTAK, konfiantzazko zerbitzu digitalak ematen hamarkada bateko esperientzia duen enpresas, “langileelektronikoaren espediente” izeneko proiektu bat garatu dute. Proiektu horren bidez, dokumentu-kudeaketako, sinadura elektronikoko eta komunikazio ziurtatuetao prozesuak digitalizatu dira, paperik gabeko edo **paperless** konpainia bihurtuz.

Bi enpresen arteko lankidetzeta-esperientzia prozesuak digitalizatzearen eta sinplifikatzearen garrantziaren eta abantailen adibide praktikoa da, pandemiak ohiko ekintzak modu desberdinean egitera behartu gaituen une honetan. «Lankidetzeta honi esker, gure irtenbide digitalak zabaltzeko aukera izango dugu, eta METAPOSTAren zerbitzuen eskutik, balio erantsi handiagoa izango dugu dokumentuak kudeatzeko eta informazioa tratatzeko dugun eskaintzan» azaldu du Gaizka Iriartek, GUREAK Marketingeko zuzendariak.

Bestalde, Asier Oriok, METAPOSTAko zuzendariak honako hau adierazi du: «Lankidetzeta hau aukera bat da gure balio-proposamena hobetzeko eta era guztietako kolektiboetan arrakala digitala murrizteko jardunbide egokiak sustatzeko. GUREAKen sentsibilitateak aberastu egingo gaitu. Denbora bat daramagu elkarlanean GUREAKen administrazio-kudeaketaren digitalizazio integralerako proiektuan, eta, lankidetzeta horren ondorioz, sinergiak hauteman ditugu eta ziur gaude beren dokumentu-prozesuen digitalizazioari ekin nahi dioten beste erakunde batzuek lagundu ditzakegula».

GUREAK eta METAPOSTA bat datoz, kasu honetan, bi enpresen arteko sinergiek, sinadura-zerbitzuak eta postontzi digitala barne, azken emaitza pertsonengan zentratzea eragiten duela, edozein enpresa edo erakunderen kudeaketa-arloaren eraldaketa digitalari ekiteko ezinbesteko gako gisa.

Proiektuaren arrakasta aldaketa-prozesuei ekintza espezifikoaren bidez laguntzearen arabera ere bada. «Sentsibilitate hori, GUREAKen misioarekin lotuta dagoena, METAPOSTAren partekatzen dugun baieztapen honetan jasota dago, “Teknologia pertsonentzat”» adierazi dute GUREAK taldeak. Bi erakundeen esanetan hori da bezeroei eskaini nahi dieten proposamen integral eta kolaboratiboa, esperientzian oinarritutakoa.

GUREAKI BURUZ

GUREAK enpresa-talde bat da, desgaitasunen bat duten pertsonen behar bezala egokitutako lan-aukera egonkorra sortzen eta kudeatzen dituena. Marketing dibisioaren baitan dokumentu-tratamenduko eta mota guztietako euskarrietako dokumentuen digitalizazioan oinarritutako informazioaren kudeaketako zerbitzua eskaintzen du, bezeroen prozesuak hobetzeko eta eraginkorragoak izateko helburuarekin.

METAPOSTARI BURUZ

Metaposta 2011n sortu zen, eta konfiantzazko zerbitzu digitalak (sinadura elektronikoa/entrega ziurtatua/legezko zaintza) garatzen ditu, datuaren/dokumentuaren jabetza bermatzeko helburuarekin, pertsona eta erakundeentzako postontzi digital pribatu, seguru eta doako baten bidez. Enpresaren hasierako helburua, eta oraindik ere hala izaten jarraitzen du, dokumentu elektronikoaren erabilera errazteko irtenbide bat eskaintzea izan zen, dokumentua sortu zenetik datuaren jabe den pertsonak edo erakundeak dokumentu hori entregatu eta legez zaindu arte.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Para más información:

Gabinete de comunicación METAPOSTA



Raquel Ecenarro

raquel@rpuntoe.com

653820308

Gabinete de comunicación GUREAK:



Olatz Madariaga

olatz@horregatik.com

655744945